




NERABEAK eta HERRITARTASUN DIGITALA Gipuzkoako gaztelekuetan



Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema
Sistema de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa




www.gaztematika.eus
Edizioa: 2015



Aurkibidea

Abiapuntua	5
Zergatik ?	6
Errealitatea	8
Helburuak eta asmoak	15
Nerabeekin lantzekoak	18
Lan-tresnak	27
Bibliografia	36





1 Abiapuntua

Gaurko gizartean Internet eta IKTak funtzesko bihurtu dira gizakien eguneroko bizitzan, batez ere nerabeentzat. Hala izanik, lan honen helburu nagusia da 12 eta 17 urte bitarteko gazteei denbora librean IKTen erabilera egokia sustatzeko tresnak eskura jartzea. Eskuan duzun dokumentua Gipuzkoako nerabeentzako zerbitzuetako (NZ) hezitzaileek, Gaztematikako komunikazio-bulegoko taldearekin, 3 lan-saiotan landutakoaren emaitza da. Bertan bildu ditugu garatu ditugun gaiak, baliabideak, hausnarketak, etab., hezitzaileen lanerako tresna eraginkorra izan dadin. Txostenean agertzen diren ideia asko tokian tokiko errealitatera egokitu beharko dira; izan ere, gaia garatzeko aukera ugari daude, eta bakoitzak erabakiko du nola moldatu.

Teknologiak, gizartea eraberritzearekin batera, haurren, nerabeen eta gazteen bizimodua aldatu du guztiz. Horregatik komeni da gai honetan pixkanaka-pixkanaka jantzi, eta ardura batzuk gure gain hartzea. Hasiera-hasieratik, garbi izan dugu herritartasun digitalaren definizio propioa sortu nahi genuela, NZtarako egokia, eta ibilbidean agertzen zitzaizkigun beharrei erantzun behar geniola. Herritartasun digitalari buruzko definizio ugari aurki daiteke, gu, ordea, nerabeentzako zerbitzuetan hezitzaileek teknologiaren inguruan izan behar dituzten gaitasunetan oinarritu gara, lan hau burutzeko.

Eragile guztien ardura da nerabeei ahalduntze horretan laguntzea, baina hezitzaileak erreferentzia bat dira haientzat. Hori dela-eta, azpimarratu nahi dugu teknologien erabilera egoki batera heldu ahal izateko, hezitzaileek positiboki eragin eta bidea erraztu dezaketela. IKTeen aurrean ditugun jarrerak eta horiei loturiko hainbat elementu mahai gainean jartzen saiatu gara. Bidean gauza asko atera dira, baina funtsean esan dezakegu, lan-talde bakoitzaren informazioa eta ezagutzak trukatu ondoren, bat egin eta gai honi lotutako baloreak sustatzeko ohitura onak definitu ditugula.

Ibilbide honetan nerabeekin herritartasun digitala lantzeko lan tresnak eta material baliagarriak sortu ditugu, edozeinek landu eta erabili ditzan: protokoloak, irudien baimenak nola moldatu, portaera egokiak zehaztu, irudiak nola kudeatu, arriskuak

ezagutu, gomendioak... Guztiak dokumentu honetan txertatu ditugu. Helburua da nerabeen esperientziak ulertu eta haiengan eragitea, hau da, bere identitatea eratzean teknologia eta sare sozialak erabiltzen dituen belaunaldi horrekin lan egiteko modua egungo errealitatera egokitzea.

Zergatik?

Jakinekua da nerabeek informazioko eta komunikazioko teknologiekin duten harreman estua: 2013an 14-17 urte bitartekoen % 89 smartphonetik sartzen zen Interneten.

Gaur egun buruhauste handiak ematen ditu IKTen eta nerabeen arteko harremanak. Gero eta nerabe gehiago daude gailuetan eta sare zozialetan. Nerabeak espazio digitalean bizi dira, eta sareak talde baten partaide sentitzeko leku gogotsuenak dira haientzat.

Nerabeek identitatea sortzeko prozesu horretan alderdi askok dute eragina. Prozesu horretan biltzen dituzten ezagutzek, gaitasunek, jarrerak eta baloreek eragina dute beren identitatea osatzean. Horregatik lan egin behar dugu arlo honetan, gazteek bitarteko digitalekin duten harremanak, sarean eskaintzen duten informazioak eta parte hartzeko aukerak dituzten moduek haien izaeran eragina dutelako.

Askotan, gainera, teknologien erabilerak distantzia sortzen du helduen eta gazteen artean. Horretarako ere nahi izan dugu ekintza hau martxan jarri, belaunaldien artean dagoen tarte horretan lokarria eraikitzeko.

Horren ondorioz sortutako beharren aurrean, helduek prest egon behar dute nerabeei gai honen inguruan erantzuna eman ahal izateko.



2 Errealitatea

2.1. Nerabeen ezaugarriak eta egoera

Heldu askok erreparoz hitz egiten dute nerabeen eta IKTen arteko harremanaz, baina nerabeek ez dute zalantzarik baliabide horiek erabiltzeko orduan. Egunerokoan erraz barneratu dute IKTen erabilera. Gai dira telefonoz hitz egin, mezu bat bidali, email bat jaso eta une berean argazki bat bidaltzeko. Modu naturalean bereganatu dute ingurune digitala. Hala ere, smartphonea ondo erabiltzen dute, baina ez da dakite sarean dagoen informazio zabal horretan edukia ondo kudeatzen.

Nerabeek teknologia berrien erabilera kontrolatzen duten arren, ez dira jabetzen mugarik gabeko mundu batean sartzen direla. IKTek onurak badituzte, baina baita galerak ere. Askotan kontzientzia eta iritzi kritikoa falta zaizkie, eta arazoa hor dago.

Adin-tarte horretan dagokiena egiten ari dira, gutxi gorabehera. Nerabezaroan beraien nortasuna eraikitzen ari direnez, arlo sozialak garrantzi handia hartzen du. Prozesu horretan lagun-taldea ezinbestekoa da, haien onarpena eta taldeko kide izatea bilatzen dituzte batik bat. Hau da, gurasoengandik urrundu nahi dute, eta gizarteratzen joan. Hori dela-eta, Internet eta sare sozialak bat datoz haien nahiarekin, harremanak egiteko aukera berriak irekitzen baitizkie. Sare sozialek eskaintzen dizkieten aukerak guztiz bat datoz egin nahi dutenarekin: lagunekin hitz egin, bihurkekiaren bat edo beste egin, ligatu... Gainera, orokorrean, berria den guztiagatik interesa adierazten dute.



Hala ere, nerabeak anonimata eta intimitatea hausteko prest egoten dira, fama eta ospea lortzearen, eta horrek ARRISKUAK sor ditzake. Gauza guztiak bezala, SAREEK ERE BEREN ALDE ONAK ETA EZ HAIN ONAK dituzte.

Nerabeek arriskuak bizitzeko aukerak dituzte, baina ez dugu larritu behar: hori ez da teknologia berrien ondorioa, halakoak erabiltzeko orduan esperientzia eta sen onik ez izatearena baizik. Teknologia berriak ez dira arriskutsuak bere horretan; askotan gure bizitzan erraztasunak ezarri eta aukera berriak eskaintzen dizkigute, gure garapena ahalbidetuz.

Hala ere, jakin badakigu IKTetan/sare sozialetan dauden jarrerak, gustuek, modek eta esterereotipoek nerabeengan eragiten dutela. Internet auto bat bezalako da, mundua ikus dezakete, lagunak bisitatu..., baina baita arriskueta sartu ere. Horregatik, gidatzen erakutsi behar diegu!

Nerabeen ezaugarriak:

- Arauak aldatu nahi dituzte
- Erantzukizunak hartzea kostatzen zaie
- Teknologia digitalak garatu direnez, nerabeak ere egokitu egin dira garai berrietan ditugun tresnetara.
- Beraiek naturaltasunez bizi dute egoera

2.2. Lehengo eta oraingo nerabeak

Jada azpimarratu dugunez, betiko gauzak egiten jarraitzen dute, baina beste modu batean. IKTak nerabeen eguneroko ekintzetan eta eginbehar askotan daude; hezkuntzarako, aisialdirako, komunikatzeko eta besteekin harremanak izateko erabiltzen ditzuzte gehienbat.

LEHEN/GAILUAK	ORAIN/GAILUAK
. Musika/irratia entzun - Walkman	. Musika/irratia entzun - Mugikorra
. Argazkiak atera - Kamera	. Argazkiak atera - Mugikorra
. Lagunekin hitz egin/komunikatu -Telefonoa	. Lagunekin hitz egin/komunikatu-Mugikorra
. Bideok ikusi i-Telebista	. Bideok ikusi - Mugikorra

. Edukiak argitaratu - Ordenagailua



. Edukiak argitaratu - Mugikorra



IKTek eta gailuek nerabeen ohiturak moldatu edo egokitu dituzte. Berehalakotasunaren kultura gaude, dena “orain” nahi dugu. Baina, ikusi dugunez, egiten dutena, oinarrian, berdina da, bai lehen eta bai orain: musika entzun, lagunekin hitz egin, argazkiak atera.... Gailu asko izan beharrean, dena mugikorretik egiten dutela argi geratu zaigu. Mugikorra gailu anitza bihurtu zaie eta mundua poltsikoan daramatela uste dute.

- Smartphoneen bidez, orokorrean, konektatuago daude.
- 2013an 14-17 urte bitartekoen % 89 smartphonetik sartzen zen Interneten.

Bizitza digitalak onurak ekarri dizkienez, arrakasta izan du. Gure munduaren eta nerabeenaren parte dira, beste aukerarik ez dugulako. Nerabeei IKTak ez erabiltzeko esatea Marten bizitzeko eskatzea bezala da; gure planeta digitala da. Hala ere, argi geratu da teknologia berriek ez gaituztela errealitatetik urrundu behar.



2.3. Zer dira sare sozialak? Zein sare sozialetan mugitzen dira nerabeak?

Labur esateko, sare sozialak harremanak izateko tresna baliagarriak dira, harreman pertsonalak izan edo ez. Gure inguruko pertsona eta erakundeekin loturak sortu eta mantentzeko balio dute, bai eta haiekin edukiak partekatzeko ere.

Nerabeek mota askotako harremanak egiteko erabiltzen dituzte, ikaskideekin, koadrilako lagunekin, udaran ezagututako pertsonekin..., eta erabilgarriak zaizkie geratzeko edo afari bat antolatzeko. Hortaz, nerabeei sare sozialek beraien lagunekin eta ikaskideekin elkartzeko topagune bat eskaintzen diete, bai eta gogoko dituzten edukiak (argazkia, bideoak, musika,...) banatzeko ere. Gustuko dituzten argazkiak, musika edo bideo interesgarriak sare sozialetara bidali, eta beraien lagun guztiek ikusteko aukera izaten dute. Gainera, lagunek horiei buruzko iritziak idazteko aukera izango dute.

Adin, gustu eta zaletasun guztietarako sare sozialak daude; errealitatea dinamikoa da eta maiz merkaturatzen dira sare sozial berriak. Sarera konektatzeko nagusiki mugikorra erabiltzen dute. Nerabeek sare sozial ezberdinak erabiltzen dtuzte, baina ezaugarri komun bat dute guztiek: harremanetan jartzeko eta partekatzeko eginak dira. Sare sozial guztien artean gure nerabeentzat ezagunenak edo erabilienak direnak jaso ditugu.

SARE SOZIALAK	EZAUGARRIAK
WASHAPP 	Whatsapp aplikazioa TELEFONO mugikorretan instalatu daiteke, eta zure kontaktuekin doan txateatu ahal izateko balio du, Interneterako konexioa baldin baduzu, bederen. Testu-mezuak, argazkiak, bideoak edo audioak bidaltzeko, bakarkako txata zein taldekoa egiteko, eta hainbat laguni mezu bera igortzeko erabil daiteke.
INSTAGRAM 	Sakeleko telefonoarekin argazkiak egin, eskaintzen dituen baliabideei esker irudi kreatiboagoak sortu, plataformara igo eta beste erabiltzaile batzuekin partekatu daitezke. Hori da, funtsean, Instagramen oinarria eta aplikazioa horren arrakastatsu bihurtu duena: dirudienez edonor da gai argazki onak egiteko.
YOUTUBE 	Erabiltzaileek bideoak igo eta partekatu ditzakete webgune honetan.
FACEBOOK 	Sare sozial asko harremanetan jartzen dituen webgunea da facebook. Lagunen berri izateko eta egunean egoteko erabiltzen dute. Argazkiak, bideoak, loturak...partekatzen dituzte.
TWITER 	Erabiltzaileei aukera ematen zaie beren lagunei edo ezezagunei mezu laburrak bidaltzeko. Mezu laburrak diogu, izan ere, gehienezko luzera 140 karakteretakoa delako.
ASK 	Atari bat da, bertan sartzeko kontu bat ireki behar da, profil bat sortu. Izena emanda duten guztiek galderak egin diezazkiokete edozein partaideri, modu anonimoan.
TUENTI 	Beste sare sozialen antzeko formatua du. Argazkiak igo, profilak iruzkindu eta lagunekin harremanetan egoteko aukerak eskaintzen ditu. Gonbidapen bitartez bakarrik sar zaizteke bertan.

Adingabe batentzat oso garrantzitsua da sare sozialetan parte hartzea. Adibidez, 2014an Facebook 1.350 milioi erabiltzaile izatera iritsi da. Pentsa haientzat zer izan daitekeen mundu zabala aurrean izatea.

Zertarako erabiltzen dituzte sare sozialak eta Internet?



2.4. Teknologia tresna bat da

Ordenagailuak (mugikorrek, gailuak) eta IKTak orokorrean baliabideak dira; gainera, sare sozialek eta Internetek berez ez dute baliorik, tresna bat besterik ez dira. Hala ere, kasu batzuetan IKTen erabilera okerrekin arrisku egoeratan (kontsumo desegokiak, egoera ez atseginak...) jar ditzakete nerabeak.

Egoera horiek saihesteko, IKTetan errespetuz jokatzeko hezteak da egokiena. Azkenean, sare sozialean edo Interneten eduki desegokietan sartzen badira, behar bezala jokatzeko ikasi behar dute.

Gaia nerabeekin lantzeko orduan bi bide edo joera daude:

1) Interneten/gailuen (mugikorra batez ere) erabilera debekatzea; hau da, gaztelekuetan erabiltzen ez uztea. Aukera horrek ez du konpontzen izan dezakegun arazoa. Askotan ezjakintasunarekin eta beldurrekin ere lotzen da portaera hau. Nahiz eta nerabeek erabileraz gu baino gehiago jakin, hezitzaileok baloreez/portaeraz

gehiago dakigu, hau da, gure buruak ordenagailuak baino ahalmen eta indar handiagoa du.

2) Erabilera arautzea. espazio batzuetan uzten diete erabiltzen, baina mugatuta. Jarrera honek lotura handiagoa du heziketarekin. Nolanahi ere, erreferentziarik gabe ez dute jarrera egokiak zeintzuk diren jakingo eta arriskueta erortzeko aukera handiagoa izango dute. Ezinbestekoa dute gaitasun digitalak eskuratzea, herritar hobeak izateko.

Adibide bat jarrita, pentsa dezagun gure etxeko hozkailuan. Demagun gozokiz, txokolategi eta postrez beteta dugula, eta, gainera, 2 edo 3 orduko altxatzeko joera dugula mokadu bat jateko: orain pastelxo bat, ondoren izozki bat, gero ogi txigortua... beranduxeago txurro batzuk. Hala balitz, ez ginateke dieta egoki bat egiten ariko; ez dira ez ohitura egokiak, ezta jarrera egokiak ere. Baina, hala ere, ez zaigu burutik pasatzen esatea: "nik ez daukat hozkailurik etxean, gizendu egiten du-eta". Denok dugu etxean hozkailua!


Bada gauza bera gertatzen da IKTekin. Errua ez dute berez IKTek, haiekin egiten dugunak baizik. Hobe da hezten joatea, neurri egokiak eta zentzuzkoak hartuz, bide egokiagoa egingo baitugu. Eta hori badago gure esku!



3 Helburuak eta asmoak

3.1. Nerabeen heziketan parte hartuko dugu

Etxeak (gurasoak) ere nerabeen heziketarako espazioa izan behar du, eskolak bezalaxe. Gure ardura batez ere aisialdi orduetan kokatuko dugu. Beraz, hiru espazio identifikatu ditugu.



3.2. Definizioa adostu:


Herritartasun digitalaren gaia jorratzen hasi ahal izateko, definizioa aztertu eta adostu dugu. Oraindik ez dago definizio estandarrik, eta, beraz, lehen urratsa definizioa hausnartzea izan da. Horrek markatu ditu jarraitu beharreko hurrengo pausuak.

Gure definizioa:

“Herritartasun digitala teknologiaren erabilerari dagozkion portaerak eta jarrerak dira. Interneten nola jokatu ikasi behar dugu, bai hezitzaileok eta baita nerabeek ere; gure eskubideak eta betebeharrak zein diren argi izan behar dugu.

Nerabeek jarrera kritikoa eta gogoetatsua izatea esan nahi du; azken batean, gizartean adostutako jokabideak eta arauak sarean ere errespetatzea, giza eskubideak sarean ere zaintzea.”






3.3. Gaitasunak identifikatu:

Horrela definitu zuten gaitasun digitala Europako Parlamentuak eta Europar Kontseiluak 2006. urteko dokumentu batean:

“Gaitasun digitala izateak informazioaren gizarteko teknologiak ongi erabiltzen jakitea esan nahi du. Teknologia horien erabilpen kritikoa eta segurua egiten jakin behar da, bai lanean, bai aisialdian, bai beste edozein komunikazio esparrutan ere. Informazio eta komunikazio teknologiak, IKTak, erabiltzeko abilezietan oinarritzen da gaitasun digitala: ordenagailuak eta antzeko gailuak erabiltzeko trebetasuna behar da informazioa lortzeko, galdutako informazioa berreskuratuzeko, informazioa biltzeko, batzeko, ebaluatzeko, sortzeko, aurkezteko, partekatzeko... eta, bide beretik, gizarte sareetan PARTE hartzeko iaiotasuna, horrelako sareen bidez komunikatzeko eta Interneten bidez auzolanetan parte hartzeko abilezia behar da. (Europar Parlamentua eta Europar Kontseilua, 2006).

Herritartasun digitala lantzeko metodologia praktikotasunean oinarrituko da. Ezagutzak, jarrerak eta baloreak, eta trebetasunak uztartuz gaitasunak landuko ditugu.



Gaitasun horiek arlo digitalarekin lotuta egongo dira; informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasun edo ahalmenen multzoa izango dira.

3.4. Helburuak

Honakoak dira herritartasun digitalari buruz zehaztu ditugun helburuak. Bereizita daude hezitzaileei dagozkienak eta nerabeei dagozkienak.

HELBURUAK (Hezitzaileak)	HELBURUAK (Nerabeak)
<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berrien aurrean ikuspegi kritikoa lantzea. • Nerabeei IKTen arloko tresnak, baliabideak eta bide-orriak irakastea. • Herritartasun digitalaren gure definizioa lantzea. • Gure jardunean IKTekiko portaera egokiak, jakintza eta gaitasunak zehaztu eta jardunean txertatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berrien aurrean nerabeek ikuspegi kritikoa lantzea • Adostutako herritartasun digitalaren definizioa nerabeekin lantzea. • IKTekiko portaera egokiak, jakintzak eta gaitasunak barneratzen joatea.

Dichas capacidades estarán relacionadas con el área digital; se trata del conjunto de facultades o capacidades para el uso de la tecnología digital

3.4. Objetivos

Hemos especificado los siguientes objetivos en cuanto a la ciudadanía digital. Hemos diferenciado las que corresponden a las/los educadoras/es y las correspondientes a la adolescencia.

OBJETIVOS (Educadoras/es)	OBJETIVOS (Adolescentes)
<ul style="list-style-type: none"> • Desarrollar una perspectiva crítica ante las nuevas tecnologías. • Enseñar a las/los adolescentes herramientas, recursos y pautas en el campo de las TICs. • Trabajar con nuestra definición de ciudadanía digital. • Determinar e incluir comportamientos apropiados, conocimientos y capacidades respecto a las TICs en nuestra labor. 	<ul style="list-style-type: none"> • Desarrollar una perspectiva crítica de las y los adolescentes ante las nuevas tecnologías. • Trabajar nuestra definición de ciudadanía digital con las y los adolescentes. • Ir interiorizando comportamientos apropiados, conocimientos y capacidades respecto a las TICs



4 Nerabeekin lantzekoak

4.1. Nortasun digitala zer da?

Ulertu dugu. Interneteko bilaketen emaitzak erakusten dituen norberaren izen-abizenei lotutako sare sozialek, iruzkinek, argazkiek... guztiek osatzen dute haren identitate digitala, hau da, Interneten bidez argitaratzen ditugun norbanakoaren bizitzako alderdiak (argazkiak, albisteak, bideoak, blogak...) dira identitate digitala.

4.1. ¿Qué es la identidad digital?

Ya lo hemos entendido. La identidad digital de alguien la construyen las redes sociales, los comentarios, las imágenes... todo aquello relacionado con su nombre y apellidos, que dan como resultado las búsquedas en Internet; es decir, la identidad digital son todos los aspectos (fotos, noticias, vídeos, blogs...) de la vida de una persona publicados en Internet.

Gaur egun, teknologiaren hedapena dela-eta, gero eta garrantzi handiagoa du. Azpimarratu dugu, era berean, identitate digital horrek zenbait alderdi onuragarri dituen arren, kaltegarriak ere badituela.

Nortasun digitala eraikitzeko hainbat modu daude. Garrantzitsuenak eta famatuena azaldu ditugu: bideoak (Youtube), mikroblogging (Twitter), argazkiak (Instagram/Facebook)... eta, jakina, Wasshap.

Nerabeei azaldu behar zaie ez daudela bi mundu, bata benetakoa eta bestea birtuala; biak dira benetakoak, baina espazio ezberdinak betetzen dituzte. Eta egia da askotan ez dugula berdin jokatzeko batean zein bestean.

Gaur egun, gure inguruneak zeresan handia du gure nortasuna definitzerakoan, eta sare sozialek ere parte hartzen dute sorkuntza horretan. Norbaiten identitate digitala ez da bere profil ofizialarekin bakarrik osatzen; mila piezaz osaturiko puzzle baten itxura du. Nortasun digitalak, gainera, berekin dakartza besteenganako eta gizartearekiko konfiantza izateko erronka eta arriskuak.

Hona hemen bideo gomendagarri bat nortasun digitala zer den ulertzeko:

<https://www.youtube.com/watch?v=qmnhclKgVg0>

4.2. Sarean arriskuak eta onurak identifikatu

Norbere pertsonalitatea garatzen ari den garai horretan sozializazioak duen garrantzia kontuan hartuta, sare sozialek eragin handia izan dezakete. Sare sozialak besteekin harremanak sortzeko erabiltzen dituzten plaza digitalak dira, baina hemen informazioa gordeta geratzen da, Googlek kontrakoa erabaki arte. Gainera, azalduta, honako hauek dira aurkitu ditzakegun arriskuak:



ARRISKUAK	DESKRIBAPENA
Ziberbullyng	Berdinengandik mota desberdinetako erasoak jasan ditzakete. https://www.youtube.com/watch?v=bdQBurXQOeQ
Ziberjazarpena	Gauza bera, baina heldu batek egiten duenean.
Grooming	Heldu bat, sexu-jazarpena egiteko asmoz, beste norbait (normalean adin txikiko bat) seduzitzen saiatzen denean erabiltzen da grooming hitza. https://www.youtube.com/watch?v=xvBB_MqkRgA&list=PLD731D4FEAD8FD7C8
Phising	Datu pertsonalak lortzeko mezu elektronikoen bidez web-orri faltsuetara bideratzea.
Sexting	Eduki erotiko edo pornografikoa duten irudiak hedabide digitalen bidez zabaltzeari esaten zaio horrela. https://www.youtube.com/watch?v=LM2q-tvc194
Eduki/argazki desegokiak	Bortxakeria, arrazismoa, sexismoa, genero-indarkeria... azaltzen diren eduki ugari aurki daitezke sarean. Sarera igotako norberaren edo ingurukoaren argazkiak desegokiak izan daitezke, edo hirugarren batzuek desegoki erabil ditzakete horiek.
Neurriz kanpoko denbora galtzea eta adikzioa	Gustuko ditugun ekintzak eta jarduerak alde batera utzi eta nabigatzen denbora asko pasatzen dugunean gertatzen da.
Marketin eta kontsumo estrategiak	Erostera bultzatzen duten iragarki ugari kontsumismoa bultzatzen dute. Horrez gain, iruzur egitea helburu duten pertsonak eta taldeak ere badira.
ABANTAILAK	DESKRIBAPENA
Informazioa	Internetek edozein motatako informazioa lortzeko aukera ematen digu eta baita guk informazioa zabaltzekoa ere.
Komunikazioa	Bizipenak, sentimenduak... adierazteko eta besteenak ezagutzeko aukera ematen digu.
Denbora-pasa	Eskaintzen dituen zerbitzu anitzengatik, momentu atseginak pasatzen laguntzen du.
Kide izateko sentimendua	Sare sozialek talde bateko kide izaten uzten digute; ondorioz, zerbaiten parte garenean, hobeto eta seguruago sentitzen gara (foroak...)
Gaurkotasuna	Edozein gairen inguruan zer gertatzen ari den eta jendeak zer egiten duen jakin dezakegu.
Sormena	Guk sortutako produktu eta material desberdinak edozeinek ikusteko moduan jar ditzakegu (<i>Beldur barik</i> bideoa)
Parte-hartzea	Sare sozialen eta teknologia berrien bidez ere lan ona egin daiteke (<i>Beldur barik</i>). https://www.youtube.com/watch?v=lljf_2peBvs

4.3. Zer gomendatu diezaiekegu nerabeei?

Askotan zaila da Interneten dagoen informazioa nola ezabatu jakitea eta nerabeei egiten dutena kontrolatzea. Onurak izan badira, baina ikusi dugunez, arriskuak ere bai. Arrisku askok ez dute kalterik sortzen, eta egoera horietako asko, erabilera egoki

batekin ekidin dezakegu. Arretaz eta arduraz jokatzuz ere murriztu dezakegu arrisku maila.

“Konszientzia digitala hartu behar dugu/dute, arduraz jokatzek duen garrantziaz jabetu behar gara/dira”.

Hezitzaileak

Egia esan, arriskuei aurre hartuz, gaitasun digitalak landuz, baloreak transmituz eta portaera egokiak izanez ekidin ditzakegu. Gomendiorik onena elkarrizketa dela garbi utzita, nerabeekin honako jokabide hauek izatea gomendatzen dugu:

- **Haiekin hitz egiten eta akordioak lortzen saiatu.** Mezu argiak emango ditugu, behin eta berriz errepikatuta.
- Bestalde, beren adinetik gertuago dauden **pertsonak ere badira gauzak azaldu ahal izateko.**
- **Hezitzaileok pixka bat gainean egon behar dugu:** zer begiratzen duten, sarera zer igotzen duten ikusteko. Bide-laguntza hau ematea garrantzitsua da, eta baita elkarrizketa horietan gomendioak ematea ere.
- **Informazio pertsonalik ez ematea** gomendatuko diegu, sarera argazki pribaturik ez igotzeko. Gogoan izan ditzatela argazki bat igotzeko orduan besteen eskubideak zaindu beharra, lagunei baimena eskatzea, nerabeentzako zerbitzuan egiten badute, hezitzaileei ere baimena eskatzea... Orokorrean, baimenik gabe argazkirik ez igotzea.
- Interneten **ezzagunekin harremanetan ez jartzea**, sarean ezagutu duten pertsonekin ez gelditzea.
- **Informazio pertsonala zaindu** dezatela: non bizi diren, non ikasten duten, telefono zenbakia, datu pertsonalak... Ez dezatela halakorik eman.
- **Nondik sartzen diren kontuan izatea**, wifi irekiak, ordenagailu publikoak, ziberkafeak... Eta gogoan izan dezatela datuak eskatzen dizkietenean “onartu” ez dutela sakatu behar.
- **Webcama ere zaintzea;** baimenik gabe ere aktibatuta egon daiteke.
- **Nerabeei zer izan nahi duten definitzen lagundu diezaiekegu.** Hala, komunitateak bakoitza zein den ikus dezake sare sozialen bitartez: artista, kirolaria, musikaria... Besteek beraiek nola ezagutzea nahi duten erabaki behar dute, eta horren arabera argazkiak, edukiak, postak edo pentsamenduak igo.



Bestela, beste irudi bat eman dezakete, gero etorkizunean eragin dezakeena, adibidez, lana bilatzeko garaian.

- **Pentsatzen duten guztia ez dute argitaratu behar;** galdera bat egin behar diote beren buruari: nahi duzu hau mundu osoan ikustea?
- **Sarean jartzen dutena ez da ezabatzen.** Webguneetan eta sare sozialetan jartzen den guztiak norberaren arrasto digitala eta nortasun digitala osatuko du. Esan diezaiekegu sarera igotzen dutena tatuaje bat bezala dela. Azkenean, argazki bat, bideo bat edo iruzkin bat sarean betiko grabatuta geratzea nahi ez bada, hobe da gauzak ondo pentsatzea.

**Gomendio hauetan oinarrituta, jarraibideak idatzi ditugu. Baliabide hau, nerabeekin lan-taldeetan lantzeko sortu dugu, eguneroko jardunean oinarrituta mugitu eta tresnak izateko.*

Kontuan izan behar dugu informazioa argitaratzeko erraztasunak jartzen dituztela beti, eta ez dugula arinegi ibili behar; gero damutzea alferrik da, askotan beranduegi baita. Errazagoa da, beti, argitaratzea, ezabatzea baino.

Eduki desegoki bat zabaldu badute, oso kontu delikatua izango da, eta eragile/ordezkarri ezberdin asko sartuko dira jokoan: batetik, biktima eta erasotzailea, eta bestetik, lagunak, gurasoak, eskola...

Garrantzitsua da, beraz, errealitate horren berri ematea: hala, garbi izango dute sare sozialetan ezin dutela halakoetan ibili (ikastolako jolastokian inor jipoitu edo iseka ibili ezin duten bezalaxe). Hainbat ziberjazarpen-egoera saihesteko modukoak izaten dira, eta lehenbailehen detektatzea izaten da garrantzitsuena (lan-saietan kasuren bat edo beste azaldu zen).

Nola egin hori? Interneten aurkituko duzu informazioa gai horri buruz. Eusko Jaurlaritzak 2011n era horretako egoerak identifikatzeko argitaratu zuen protokoloa kontsultatzea gomendatzen dugu, baita Arartekoaren bulegoak argitaratutako material didaktikoa ere.

- Arartekoaren material didaktikoa:
[www.ararteko.net/p_1_final_Home.jsp?seccion=s_ldoc_d4_v4.jsp
&codbusqueda=89&language=es&codResi=1&codMenuPN=1&cod
MenuSN=376&codMenu=120&title=Materiales+did%E1cticos](http://www.ararteko.net/p_1_final_Home.jsp?seccion=s_ldoc_d4_v4.jsp&codbusqueda=89&language=es&codResi=1&codMenuPN=1&codMenuSN=376&codMenu=120&title=Materiales+did%E1cticos)



4.4. Baloreen heziketa

Baloreen heziketa hezkuntzako edozein arloren oinarrian dago, eta baita teknología berrien hezkuntzan ere. Teknología berriak erabiltzeko modu onak edo txarrak nerabeei transmitituko dizkiegun baloreen arabekoak izango dira.

Nerabeek izan behar dituzten portaerak eta jarrerak definitu ditugu, eta horiek bideratuz lortuko dugu IKTen arloan balore onak transmititzea.

Herritartasun digitala teknologiaren erabilerari dagozkion portaerak eta jarrerak direnez, portaera egokiak zein izan daitezkeen zehaztu dezakegu. Baloreen eta portaeren zerrenda egin dugu nerabeekin lantzeko.

** 10 balore horien bitartez, 10 portaera egoki landu ditugu nerabeekin sarean garatzeko, batzarretan, eskolan, etxean haiekin adostu eta ikusgai egiteko (eranskinean daude txertatuta).*

Nerabeek sarean balore horiek zaindu eta betetzen badituzte, tresnez hornitzen ari gara, nerabeek eguneroko erabileran kontrol eta segurtasun handiagoak izan ditzaten.

4.5. Irudien kudeaketa eta babesa

Gai garrantzitsua denez, eta nerabeen irudien kudeaketa, baimenak eta eskubideak bakoitzak bere modura lantzen dituela ikusita, gaiari heltzea erabaki genuen. Bi modutara landu dugu:

- 1) **Baimenak egokitzea**, nerabeei argazkiak atera, kudeatu eta argitaratzeko orduan gauzak behar bezala egiteko.
- 2) **Baliabideak eskaintzea nerabeei**, irudiak sarean ongi igo ahal izateko.

4. 5.1. Baimenak egokitzea

Irudiak datuak dira eta Espainiako Datuen Babeserako Agentziak hainbat lege ditu datu horiek babesteko (atxikita doa dokumentua). Oinarri gisa, honako hauek dira gutxienez jakin beharrekoak:

- Nire irudia Internetera igotzeak esan nahi du edonork duela eskubidea argazki hori ikusteko. Beti ere, pribatizazio-filtrorik erabili ez badut (adibidez, nire lagunek bakarrik ikus dezaten agindu Facebooken), argazkia publikoa egiten dudan unetik aurrera argi izan behar dut sarean geratuko dela betiko.
- Argazkia sarean egoteak ez du eskubiderik ematen hori deskargatu, editatu edo partekatzeko. Argazki horren jabea argazkia atera duena da, argazkiaren protagonista hirugarren pertsona bat bada eta berak jakin gabe argazkia atera bazaio, honek eskubidea du bere irudia ezabatzeko agindua emateko.
- Argazkia igo duenak ezezkoa ematen badu, bi modutara bete daiteke agindua: Datu Pertsonalen Babeserako Agentziarekin harremanetan jarriz edo argazkia igota dagoen euskarriarekin harremanetan jarriz.
- Irudiak ez dira inoiz izango nerabearen intimitatearen aurkakoak, ezta ere keinu edo jarrera iraingarri edo sexista bat dutenak. Balore positiboak azaltzen saiatuko gara: errespetua, askatasuna, identitatea, segurtasuna, erantzunkizuna, garapen librea/bizi kalitatea etab. Nerabearen daturik ez dugu igoko (izen-abizenak, helbidea, etab.)
- Nerabeen irudiak erabili ahal izateko, beharrezkoa da haiek baimen-orria betetzea. 14 urtetik gorako adina badute, haiek beteko dute orria eta, gazteagoak badira, haien guraso edo tutore legalak. Gainera, komenigarria da erabiliko ditugun irudietan azaltzen diren pertsona guztien baimenak izatea, nahiz eta adinez nagusiak izan. Baimena eman duen pertsonak eskubidea du nahi duen unean baimena bertan behera uzteko edo hura erabiltzeko edozein zehaztasun emateko.
- Baimen-orria sinatuko duen pertsonak argi izango du zein erakunderi ematen dion baimena. Gipuzkoako Aldundiko Gazteria Zerbitzuari ematen badio,

ondoren, irudia ezingo dugu enpresa pribatu batean erabili. Horretarako, baimen-orri berri bat bete beharko da, argituz non eta zertarako erabiliko den. Gainera, argi utziko dugu irudia zein ekintzatarako erabiliko den; ekintza desberdinak izanez gero, berriz ere baimen-orri berri bat sinatu beharko da, ekintza argi utziz. Eskatutako baimenak gaztelekuaren zerbitzuak egiten dituen ekintza guztiak bere baitan hartzea nahi badugu, argitu egin beharko dugu, eta sinatzaile guztiek baimena ondo ulertu dutela ziurtatu beharko dugu.

- Nerabe edo haur baten gurasoek baimenik ematen ez badute, kontu handia izango dugu, haren irudirik atera ez dadin. Ateratzeko modu bakarra da nerabea identifikatu ezin izatea, mozorrotua dagoelako, urruti eta atzera begira dagoelako, etab.

* Baimenen ereduak atxikita doaz bukaeran.

4.5.3. Nerabeak eta irudiak

Nerabeentzat erakargarria da uneak partekatzea modu erraz batean, hau da, mugikorrek in egindako argazkiekin edota bideoekin. Nerabeak nagusiki ikusmenean oinarritutako kultura batean ari dira hazten, eta komunikazio-prozesuan irudiek balio adierazkor berezia dute.

Baina ba al dakite zer gerta daitekeen sare sozial batean zerbait partekatzen dutenean? Lehenik eta behin, lagunek ikusiko dute, haiekin harreman zuzena baitute. Taldeko norbaitek elkarrekin ez duten kontaktu bati bidaltzen badio, amaierarik gabeko kate bat



hasiko da, eta materiala edonork edukiko du eskura. Hori, jakina, erraz eta bizkor saihesta daiteke. Har dezagun Facebook adibide gisa: pribatutasun-parametroetan sartuta, zer informazio eskura dezakegun eta norentzat muga dezakegun badakigu. Nahikoa da jakitea eta egitea! Hori behin eta berriz adierazi behar diegu: pribatutasun-aukerak nola erabili.

Argazki bat argitaratu aurretik esan behar zaie hausnartu egin behar dutela: irudi bat lagunartetik kanpo gaizki interpretatzeko arriskua badago, hobe da ez zintzilikatzea. Argazkian beste inor ateratzen bada, baimena eskatu behar zaio,

hura ere bada-eta argazkiaren jabe. Sarean dabilen zerbait kontrolatzea oso zaila dela jakin behar dugu, eta nerabeei ere hala adierazi behar diegu.

Neraberen batek aurrez ezarritako arauak betetzen ez baditu, argazkia kentzeko esango diogu. Gure espazioan gertatu bada, eskubidea dugu horretarako. Hona hemen atxikita eskola-eremuan ateratako argazkiei buruzko artikulua

- Ayuda y proteccion de datos:
<http://www.ayudaleyprotecciondatos.es/2011/03/22/fotografias-ninos-colegios/>

Informazio erabilgarria: *Instagram* erabiltzeko hainbat tutorial.

- Argazkiak Instagramen: <https://www.youtube.com/watch?v=uU-NeoHYiB4>
- Bideoak *Instagram*en: <https://www.youtube.com/watch?v=cg-Mpehl-fE>.

5 Lan-tresnak

Ikt-ak egoki erabiltzeko orientazioa:

Kokapena, erabilera eta denbora

- Ordenagailuak, mugikorak, tabletak, etab. kokatzeko, erabiltzeko eta denboran mugatzeko arauak jarri. Adibidez: ekintzetan ez erabiltzea / egun batzuetan bakarrik / asteburuetan / egin beharrekoak amaitu eta gero.
- Interneten sartzeko ordutegi bat eta denbora-tarte bat erabaki. Wifi-a denbora batez bakarrik ireki.
- Nerabeekin egin, partaidetzazko prozesu adostu bat izan dadin.
- Ez da osasungarria libre duten denbora guztia konektatuta egotea.
- Bestelako jarduera-mota batzuk ere garrantzitsuak direla jakinarazi behar zaie.
- Zuzenean lagunekin eta kideekin harremanak izatera animatu.
- Programazioaren barruan, IKTak plangintza baten arabera erabili: Internet eguna, Wii arratsalde, aplikazioak ezagutzeko tailerra ...



Internet nerabeekin partekatu

- Une egokiak baliatu, Interneten zer begiratu duten galdetzeko. Naturaltasunez hitz egin, beste edozein gairi buruz bezala.
- Une egokiak baliatu, nerabeen espiritu kritikoa sustatzeko.
- Animatu kontatzera zerbaitek deseroso sentiarazten baditu, zerbait iraingarria edo desatsegina iruditzen bazaie.
- Nerabeekin hitz egin Interneten bete beharreko portaera-arauei buruz, erantzukizunez jokatu ahal izan dezaten.
- Haien adinari dagokion hizkuntza eta eredu erabili.

Errespetua eta hezkuntza

- Nerabeei azaldu baloreak eta printzipioak harreman zuzenetako berberak direla.
- Argi izan behar dute IKTen erabileran zuzena zer den eta zer ez.
- Ez erabili ordenagailua edo mugikorra sari moduan. Era horretako erabakietatik kanpo geratu behar dute.
- Hezitzaile garenez, ezin gaitu makina batek ordeztu. Gure lana egiteko orduan, oso garrantzitsuak dira emozioak eta harremanak.
- Interneten dena ez da fidagarria. Albisteak, informazioa, dokumentuak eta abar egiaztatu egin behar dira.

Konfidentzialtasuna eta identitatearen babesa

- Informazio pertsonalik inoiz ez ematen irakatsi (benetako izena, helbidea, telefono-zenbakia, ikastetxea...), eta, zalantzarik izanez gero, kontsulta dezatela.
- Ordenagailuetan, edukiak aukeratzeko elementuak txertatu, eduki arriskutsu jakin batzuetara iristea saihesteko.



Salaketa

- Jakinarazi behar zaie guregana jo dezaketela, legez kontrako ekintza bat edo zantzuren bat iristen bazaie. Hala gertatzen ari zaiena jakingo dugu.
- Azpimarratu zein arriskutsua den leku pribatu batean “ziberlagun” batekin elkartzea.

Legez kanpoko behera kargatzeak

- Azaldu egin behar zaie besteen lanaren kopiak egitea lapurtzearen parekoa dela.
- Internetek ez du esan nahi “harrapatzen dudan guztia nirea da”.

Komunikazioa beste eragile batzuekin

- Garrantzitsua da, gai honi dagokionez, gurasoekin, ikastetxearekin eta bestelako erakunde batzuekin loturak izatea.



* Nerabeekin lan-taldean landu daiteke.

Sareko 10 portaera egokiak

1. Errespetua

- Guztiak gara pertsona duinak, besteei errespetua diet eta errespetatzen naute.
- Iraina, kalumnia eta izena ona zikintzea delituak dira.
- Ez laidotu, ez ekintzaz, ezta hitzez ere.

2. Askatasuna

- Parte-hartzea edo ez neuk erabakitzen dut, eta besteen erabakia ere onartzen dut.

3. Identitatea

- Nire identitatea eta isilpeko informazioaren erabilera babesten ditut.
- Ez dut inoren lekua hartzen, ez dut beste inoren pribatutasuna edo fidagarritasuna urratzen.
- Zintzotasunez identifikatzen naiz.
- Ez dut emango informazio pertsonalik (benetako izena, helbidea, telefono-zenbakia, ikastetxea ...).

4. Segurtasuna

- Bisitatzen ditudan guneak aukeratu egiten ditut.
- Harremanetan jartzeko pertsonak aukeratu egiten ditut.
- Kontuz ibiltzen naiz izaten ditudan harremanetan.
- Ez dut adostuko hitzordurik ezezagunekin Internet bidez, ezta ziberlagun batekin ere leku pribatu batean.

5. Erantzukizuna

- Taldean adostu duguna, Internet erabiltzeko arauak, beteko ditut.
- Informazioa ematen dut, nire intimitatea edo besteena ukitu gabe.
- Ezagutzen ditudan pertsonen informazioa errespetatzen dut eta ez dut argitaratzen.
- Informazioa, beti, tartean diren pertsonen baimenarekin erabiltzen dut.

6. Garapen librea

- Nire ideiak eta besteen pentsamenduak errespetatzen ditut.
- Nire pentsamenduak eta zaletasunak errespetuz eta arduraz adierazten ditut.
- Besteen iritzia, ideiak eta pentsamenduak errespetatzen ditut.

7. Nire bizi-kalitatea hobetzen

- Giro zintzoa eta baketsua sortzen ahalegintzen naiz.
- Nire garapen intelektuala bultzatzen dut.
- Nire taldeari laguntzen diot eta guztiak hazten edo garatzen gara.
- IKTei eskaintzen didan denbora autoerregulatu egiten dut.
- Interneten zerbaitek gaizki sentiarazten badit, hezitzaileei jakinaraziko diet.

8. Adingabeak babesten ditut

- Eredu ona naiz laguntzat.
- Lagunak erabileran gidatzen ditut eta bide-laguntza ematen diet.
- Arauak eta bisitatzeko guneak zehazten ditut.

9. Legez kontrako ekintzak

- IKTak ez ditut erabiltzen legez kontrako ekintzetarako.
- Gune seguruak eta konstruktiboak babesten, sustatzen eta erabiltzen ditut.
- Ez dut onartzen, ez sustatzen, ezta zabaltzen ere, legez kontrako ekintzak egiten dituen gunerik.
- Ez dut behera kargatuko musika edo artxiborik legez kanpoko metodoak erabilia, bestela legeren bat edo egile-eskubideak urra ditzaket.

10. Legezkoa

- Egile-eskubideak errespetatzen ditut.
- Ez dut erabiltzen, ez kopiatzen, ezta merkaturatzen ere, egile-eskubideek babestutako produkturik.
- Besteen produkzio intelektuala aitortzen dut.
- Baimendutako teknologia (programak) erabiltzen ditut, piratarik ez.

* Nerabeekin lan-taldean landu eta imprimatu ondoren, jartzeko.



Jarri zure logoa

14 urtetik gorako irudiak gure zerbitzuaren euskarrietan erabiltzeko baimena jasotzeko dokumentua.

IZEN-ABIZENAK _____

NAN _____

PARTE-HARTUTAKO JARDUERA _____

BAIMENA EMATEN DUT

Nire irudia (argazkiak, bideoa, soinua) erabiltzeko, nerabeentzako zerbitzuaren web-orrian, sare sozialetan edo bestelako dokumentuetan (foiletoak, txostenak edo antzekoak). Irudia erabiltzeko helburua honakoa izango da: parte hartu dudak ekintzaren berri ematea, edota euskarri horien bitartez, haur, nerabe eta gazteen irudi positiboa zabaltzea. Irudiak ez dira nire intimitatearen kontrakoak izango.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, _____(e)k jakinarazi dit eskuratzen dituen datuak haur, nerabe eta gazteen kudeaketa helburu duen fitxategian sartuko direla.

Nahi izanez gero, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzaket, ondorengo helbidera idatzizko eskaera bat bidaliz:

_____ -n, _____ -n

Sinadura

Jarri zure logoa

14 urtetik beherakoen irudiak gure zerbitzuaren euskarrietan erabiltzeko baimena jasotzeko dokumentua.

TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK _____

NAN _____

NERABEAREN IZEN-ABIZENAK _____

PARTE-HARTUTAKO JARDUERA _____ Instant1ean Instagrameko lehiaketa _____

BAIMENA EMATEN DUT

Nire seme/alaba edo tutoretzapeko nerabearen irudia (argazkiak, bideoa, soinua) erabiltzeko, nerabeentzako zerbitzuaren web-orrian, sare sozialetan edo bestelako dokumentuetan (foiletoak, txostenak edo antzekoak). Irudia erabiltzeko helburua honakoa izango da: parte hartu duen ekintzaren berri ematea, edota euskarri horien bitartez, haur, nerabe eta gazteen irudi positiboa zabaltzea. Irudiak ez dira haren intimitatearen kontrakoak izango.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, _____(e)k jakinarazi dit eskuratzen dituen datuak haur, nerabe eta gazteen kudeaketa helburu duen fitxategian sartuko direla.

Nahi izanez gero, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzaket, ondorengo helbidera idatzizko eskaera bat bidaliz::

_____-n, _____-n

Sinadura

PRAKTIKA EGOKIAK

- <http://adolescentesinviolenciadegenero.com/>
- www.hankazgora.com/p/instagram.html
- www.segursarean.net/
- www.educaciontrespuntocero.com/
- www.conectadoseljuego.com/
- <http://adolescenciayjuventud.org/es/>
- www.cibercorresponsales.org/

NORTASUN DIGITALA

- <https://marcelamomberg.wordpress.com>
- www.segursarean.net
- www.incibe.es/
- www.etiquetassinproblemas.com/
- www.cuidatuimagenonline.com/
- www.youtube.com/user/PantallasAmigas
- www.protegetuinformacion.com/
- www.protegeles.com/
- www.chaval.es/chavales/
- <https://klikatekla.wikispaces.com>



ADIN TXIKIKOENTZAT

- www.clubpenguin.com
- www.tudecideseninternet.es/menores/

ADITUAK

Tíscar Lara (Organizazio industrialaren eskolako komunikazio zuzendaria)

- <http://tiscar.com/>
- www.youtube.com/watch?v=EuQGNRrHZj4

Dolors Reig (Psikologo soziala)

- www.dreig.eu/caparazon/

ZIBERBULLYING:

- www.deaquinopasas.org/docs/estudio_riesgos_internet.pdf
- www.denuncia-online.org/
- www.pantallasamigas.net/otros-webs/ciberbullying-com.shtm
- www.youtube.com/watch?v=1tsavEAULFA
- <http://old.digizen.org/cyberbullying/film.aspx>
- www.friends.se
- <http://old.digizen.org/cyberbullying/film.aspx>
- www.friends.se



PROTOKOLOAK

- www.protocolo-ciberbullying.com
- www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/600014e_Pub_Emici_Ciberbullying_Protocolo_e.pdf

SEXTING

- www.sexting.es

GROOMING

- www.internet-grooming.net
- www.youtube.com/watch?v=xvBB_MqkRgA&list=PLD731D4FEAD8FD7C8

PRIBATUTASUNA

- www.youtube.com/watch?v=qmnhclKgVg0

GAITASUN DIGITALAK

- http://es.wikipedia.org/wiki/Competencias_digitales
- www.escuela20.com
- www.julianmarquina.es/las-8-competencias-digitales-que-todo-profesional-debe-tener/

IRUDIEN ESKUBIDEAK

- [Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa.](#)
- [Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa \(ABJLO\) da, Kode Zibila eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legea partzialki aldatu dituena.](#)
- Irudiak erabiltzeko politika



*Baliabide gehiago www.gipuzkoangazte.eus



6 Bibliografía

- **Gaztematika (2014):** *Nerabeentzako zerbitzuko hezitzaileen profila*. Gipuzkoakoa Foru Aldundia, Donostia.
- **Gazteen Euskal Behatokia (2013):** [Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan](#). Eusko Jaurlaritza - Gasteiz.
- **Fernando Garcia Fernández (2009):** [Nativos interactivos: Los adolescentes y sus pantallas: reflexiones educativas](#). Foro de generaciones interactivas - Madrid
- **Eusko Jaurlaritza (2012):** [Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia](#). Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila - Gasteiz.
- **Francisco Javier Pérez Latre (2010):** [Las nuevas redes sociales ¿Moda o revolución?](#). Universidad de Navarra - Iruñea.
- **Patricio Cabello Cádiz, Icíar Fernández Villanueva (2010):** [La tecnología en la preadolescencia y adolescencia: usos, riesgos y propuestas desde los y las protagonistas](#). Save the Children.
- **Susana Méndez Gago, Elena Rodríguez San Julián (2011).** [Consecuencias futuras del despertar de una generación de adolescentes digitales](#). INJUVE Revista de estudios de juventud - Madrid.
- **Crecer en Red, Edición 1.0.** [Educar para proteger Guía de formación TIC para padres y madres de adolescentes](#). Junta de Andalucía - Sevilla.

- Miguel Ángel García Andrés (2009). [Nerabeak sarean. Interneten bizi, irakurri eta idatzi](#). Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamendua - Iruñea.

- Guillermo Cánovas, Alicia García de Pablo, Ana Oliaga San Atilano eta Isabel Aboy Ferrer (2014): [Menores de Edad y Conectividad Móvil en España: Tablets y Smartphones](#). Centro de Seguridad en Internet para los Menores en España: Protegeles.

- Víctor Cuevas, (2011): [¿Qué es la Identidad digital?. Identidad Digital y Redes Sociales con menores](#). [Consulta: 15 de noviembre de 2014].

- Agencia Española de protección de Datos (2011): [El derecho fundamental a la protección de datos: guía para el ciudadano](#). Agencia Española de Protección de Datos - Madrid.

- Artemis Tsitsika, Eleni Tzavela, Foteini Mavromati eta eu net adb Consortium (2013): [Investigación sobre conductas adictivas a internet entre los adolescentes europeos](#). Asociación Prótegeles.

